XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5530

AGINDUA, 2012ko azaroaren 28koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeentzako laguntzak arautzen dituen Agindua hirugarren aldiz aldatzeko dena.

Ekonomia sustatzeko laguntza-ildoak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuko 14. artikuluaren bitartez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterrak laguntzeko Programa.

Dekretu horretan oinarriturik, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeentzako laguntzak arautzen dituena, eman zen (2000ko abenduaren 11ko EHAA, 235. zenbakia).

Ondoren, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2007ko ekainaren 1eko Aginduaren bidez, ikus-entzunezkoen sektorea, bere finkatze-prozesua oso ondo burutu duela-eta, lehentasunezko kluster gisa hartu zen.

Era berean, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko otsailaren 14ko Aginduak, bigarren aldiz aldaketak egitekoak, Enpresa Kudeaketari buruzko Ezagutza klusterrari lehentasunezko kontsiderazioa kendu zion, kluster hori Berrikuntzaren Euskal Agentzian sartu zelako.

Euskal Autonomia Erkidegoko forja, galdaketa eta burdigintzako industriak hartzen dituzten elkarteetan hausnarketa estrategikoa egin ondoren, ulertu da bidezkoa dela metalurgia-sektoreari lehentasunezko klusterraren tratamendua ematea, sektore hori Euskal Autonomia Erkidegoko industria-ehunaren sektorerik garrantzitsuenetakoa delako. Hausnarketa estrategiko horretan, industria horien artean dauden sinergiak eta sektoreko lehiakortasuna handitzeko proiektuak batera burutzeko aukera aztertu dira.

Hori dela eta, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2000ko azaroaren 28ko Aginduaren 4. artikuluko 1. paragrafoa aldatzea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeentzako laguntzak arautzen dira. Aipatu paragrafo hori, honelaxe idatzita geratuko da:

«1.– Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko klusterretako enpresa-taldeek jaso ditzakete agindu honetako laguntzak, baldin eta ondoko sektoreren batekoak badira: areonautika, automozioko osagaiak, elektratresnak, energia, makina-erreminta, ingurumena, papera, informazioaren teknologiak, itsasketa, portuena, ikus-entzunezkoena eta metalurgia».

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Kabinete, Plangintza eta Estrategiako sailburuordeari ahalmena ematen zaio agindu hau aplikatzeko beharrezkoak diren ebazpenak emateko, eta aginduari buruz sortuko diren zalantza zehatz guztiak konpontzeko.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 28a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.